



Tokiko Gobernu Batzarra
Junta de Gobierno Local

TGB akordioa
Acuerdo de JGL
2024/05/07

Zinegotzi idazkaria / Concejal-a secretario-a
Miren Nekane Arzallus Iturriza

DONOSTIAKO UDALA

EUSKARAREN ERABILERA PLANA

VII. Plangintzaldia (2023-2027)



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3. or.
2. Aurrelanak	5. or
2.1. KEMEN metodologia	5. or.
2.2. Lan-prozesuaren helburuak	7. or.
2.2.1. Helburu nagusia	7. or.
2.2.2. Helburu zehatzak	8. or.
2.3 Lan-prozesuaren nondik norakoak	8. or.
2.3.1. Egiturak	8. or.
2.3.2. Lan-prozedura.....	9. or.
3. Euskararen Plan Estrategikoa 2023 – 2027	10. or.
3.1. Udalaren hizkuntza egoeraren indarguneak eta hobetzekoak	10. or.
3.2. Erronka eta helburu estrategikoak	14. or
3.2.1. Kudeaketaren erronkak eta helburu estrategikoak	14. or
3.2.2. Erabileraren erronkak eta helburu estrategikoak	14. or.
3.3. Plan Estrategikoa.....	15. or.
3.3.1. Adierazleen araberako helburuak aurreikusteko irizpideak	15. or.
3.3.2. Adierazleen araberako helburuak.....	19. or.
3.3.3. Helburu estrategikoak lortzeko lan-ildo nagusiak	24. or.
3.4. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	30. or.
3.5. Antolakuntza egiturak eta funtzioak	30. or.
3.6. Baliabideak	32. or.
3.6.1. Giza baliabideak eta bestelakoak	32.. or.
3.6.2. Euskarazko administrazio-unitateak.....	32. or.
3.7. Planaren garapena eta jarraipena.....	34. or.

1. SARRERA

Euskararen erabileraren normalizazioari lotuta indarrean dagoen araudiaren arabera, herri administrazioei dagokie herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzea. Horrela, azken urteotan urrats garrantzitsuak egin dira Donostiako Udalean bai herritarrei zuzendutako zerbitzu eta jardueretan bai barne komunikazioetan euskararen erabilera areagotzeko, baina erabilera ez da behar hainbatean hazi, eta jauzi hori egitea da aurrera begirako erronka nagusia.

Euskararen Erabilera Planaren zutabeak lau dira: izaera estrategikoa izatea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea hizkuntza berdintasuna helburu izanik eta administrazioa eredu eta erreferentziazko gune izatea, betiere arduradun politiko, tekniko zein sindikalen lidergoarekin.

Ikuspegi estrategikoa

VII. Euskararen Erabilera Plana (2023-2027 epeari dagokiona) Eusko Jaurlaritzak garatutako arau eta irizpideak gauzatzera dator Donostiako Udalean.

Segida kronologikoari dagokionez, Donostiako udalak landu duen zazpigarren plana da hau. Aurreko urteetan egindako lanak oinarri sendoa ematen dio Udalari, plana garatzeko eta proposatzen diren neurriak gauzatzeko.

Urte hauetan guztietan Eusko Jaurlaritzak garatutako araudiari jarraituz, kultura soziolinguistiko berri bat hedatu nahi da Donostiako Udalean, euskara Udaleko komunikazio, zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin, zeharkako ikuspegian sakonduz eta zuzendaritza bakoitzak euskararen kudeaketa bere gain hartuta.

Hortaz, Donostiako Udalaren lehen lana izango da Udala denekin eta testuinguru guztietan euskaraz lasai aritzeko erakundea izan dadin lan egitea; ahaztu gabe, dauzkagun arauetatik abiatuta, datozen urteetan Udala nagusiki euskaraz arituko den erakundea izatea bilatzen dela plan honen bidez, hori baita euskararen biziberritze prozesuari arnasa ematen dion ikuspuntua.

Herritarren hizkuntza eskubideak eta hizkuntza berdintasuna

Euskararen ofizialtasunak herritarron hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu, unibertsaltasun printzipioa oinarri hartuta, gizartean harreman parekideak lortzeko eta gizarte kohesioari laguntzeko. Horregatik, hizkuntza eskubideen bermeak gidatuko du Donostiako Udalaren jarduera, ahalbidetuz hiztun komunitateak euskaraz bizitzeko duen eskubidea eta ziurtatuz herritarren hizkuntza hautua Administrazioarekin dituen harremanetan. Oinarrizko printzipio horretatik

ondorioztatzen da hizkuntza eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak. Hartara, Udalaren betebeharra da eskubide horien erabilera bermatzea.

EAEEn bi hizkuntza ofizial ditugu, balio juridiko berbera izan arren, egoera soziolinguistiko desberdinean eta desorekatuan daudenak. Egoera desberdin horren aurrean, Donostiako Udalak lehentasunez erabiliko du euskara, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna ekarriko duen egoera lortzeraino. Herritarren hizkuntza aukeraren berdintasuna bermatu eta desoreka berdindu nahi bada, erabilera sozialean mugakizun handienak dituen hizkuntzaren alde jokabide positiboko neurriak hartu behar dira, frogatua baitago, horiek gabe, arauen eragina mugatua dela hizkuntzaren garapenaren alde. Eragin sozial handia duten gainerako politika publikoetan bezala, Donostiako Udalak ereduzko jokabidea izateko erantzukizuna hartu nahi du esparru honetan.

Horrenbestez, udalak neurriak hartu eta bultzatuko ditu, euskarari funtzio eta espazio propio batzuk emanaz eta gaztelaniarekiko oreka berri bat sustatuz, kultura soziolinguistiko berri baten parametroetan.

Administrazioa: eredu eta erreferentziako gune

Badira 40 urte baino gehiago bi hizkuntza ofizialen araubidea ezarri zenetik, eta euskararen ezagutza handitzeko aurrerapauso garrantzitsuak egin dira eremu askotan; besteak beste, administrazioan.

Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da oinarritu ezagutza indartzeko neurrietan bakarrik. Ezinbestekoa da, ezagutzaz harago, erabilera esparruak eta funtzioak ere irabaztea, eta erronka handienetako bat da lan munduan erabilera areagotzea; eremu horretan ezinbestekoak dira Administrazioaren erreferentzialtasuna eta lidergoa.

Lidergoa

Donostiako Udalaren hizkuntza politikaren baitan, arduradun politikoek, teknikoek zein ordezkari sindikalek berebiziko garrantzia eta erantzukizuna dute Udalaren jardura guztietan hizkuntza irizpideak betetzeko eta betearazteko; hartara, eredugarriak eta erabilera planarekin koherenteak izateak bultzada handia emango dio Udalaren hizkuntza politikari. Halaber, Udaletik kanpora ere eragiteko gaitasun handia izango dute, herritarren eta eragile sozioekonomikoen aurrean euskararen aldeko jarrera proaktiboa badute.

Beraz, Donostiako Udalak, euskarari dagokionez, bere etorkizuna honela irudikatzen du:

“Nagusiki euskaraz arituko den erakundea izatea; hau da, denekin eta testuinguru guztietan euskaraz lasai egin daitekeen eremu bat izatea, non herritarrei zerbitzua euskaraz bermatzeaz gain, bai udalerrian bai administrazioan, hizkuntzaren normalizazio prozesuan erreferente izango den.”

Etorkizuneko helmuga hori lortzeko bidean, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 19/2024 Dekretuak jasotzen duenaren arabera eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioaren kudeaketa eta jarraipena egiteko proposatu duen KEMEN markoa oinarri hartuz, Donostiako Udalak, Elhuyar Aholkularitza enpresaren laguntzarekin, 2023-2027 eperako VII. Euskararen Erabilera Plana prestatu du eta, eman beharreko pausoak Plan Estrategiko honetan definitu ditu, genero ikuspegia kontuan hartuz; bertan zehaztu dira, datozen bost urteotarako helburu estrategikoak, adierazleen arabeko helburu zehatzak eta horiek gauzatzeko lan-ildoak, arduradunak eta epeak.

2. AURRELANAK

2.1. KEMEN metodologia

Donostiako Udalak, VI. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren (2018-2022) ebaluazio datuak oinarri hartuta, VII. Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) osatu du.

VII. Plangintzaldira begira, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko marko berria eta tresna berria garatu ditu: **KEMEN metodologia eta SAREGIN aplikazioa**.

Marko berri honek Udala bezalako erakunde batean euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu eta **lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari**, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Hori dela eta, metodologia berri honek ekarri du kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema eguneratzea.

Ondoko hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketari lehentasuna eman zaio, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...

- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoz.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Adierazleen aginte-panela osatu da. Kemen metodologiaren barruan, Eusko Jaurlaritzak 48 adierazle zehaztu ditu, baina euskal sektore publikoko erakundeen jarraipenerako aginte panelean ezarri dituen gutxieneko adierazleak 14 dira. Hau da, Donostiako Udalak 14 adierazle horiek ezinbestean landu beharko ditu bere Plan Estrategikoan eta horren berri eman beharko dio Eusko Jaurlaritzari. Hala ere, 14 adierazle horiez gain, egoki ikusi da plangintzaldi honetan latzeko estrategikoak eta lehentasunezkoak diren beste adierazle batzuk aukeratzea eta, beraz, Plan Estrategiko honen jarraipena egiteko beste zenbait adierazle ere erabiliko dira.

Gauzak horrela, ondoko taulan jasotzen dira KEMEN markoak dituen 48 adierazleak. Crema kolorez ageri direnak Eusko Jaurlaritzak ezinbestekotzat jo dituen aginte-paneletakoak dira eta urdinez ageri direnak, aurrekoek gain, Udalak aukeratu dituenak.

ARLOA	ADIERAZLEA
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.
	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
LIDERGOA	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezzen.
	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan.
LANGILEAK	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera planari eta hizkuntza irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
	Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak betetzen dituzte.
	Langileek betetzen dituzte kudeaketa planean adostutako eginkizunak.
	Langileek parte hartzen dute kudeaketa planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.
	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilera erakundearen duen bilakaeraz.
GAITASUNA	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.
	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.
	Arduradun politikoak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei
	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari

ARLOA	ADIERAZLEA
IRUDIA	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude
	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude
	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan
	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen
	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz
	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira
	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak
	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz
	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz
	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz
BARNE-HARREMANAK	Lan-bilerak euskaraz egiten dira
	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da
	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da
	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira
	Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian
	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian
	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago
KANPO-HARREMANAK	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana
	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana
	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
PRESTAKUNTZA	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei
	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra
	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak
	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak
SORTZE-HIZKUNTZA	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak

2.2. Lan-prozesuaren helburuak

2.1. Helburu nagusia

VI. Plangintzaldiari dagokion Euskararen Erabilera Planaren ebaluazioaren datuak aztertzea eta VII. Plangintzaldiari dagokion planaren erronka eta lan-ildo nagusiak zehaztea eta lantzea, Donostiako Udaleko eragileekin batera, eta parte hartzean oinarrituta.

2.2. Helburu zehatzak

- Donostiako Udaleko eragileen iritzia jasotzea eta haien inplikazioa areagotzea.
- Saioetan parte hartzen duten kideen euskararekiko atxikimendua eta ardura areagotzea.

2.3. Lan-prozesuaren nondik norakoak

2.3.1 Egiturak

VI. plangintzaldiko (2018-2022) diagnostikoaren azterketa egiteko eta VII. plangintzaldiko (2023-2027) Euskararen Plan Estrategikoaren oinarriak zehazteko eta lantzeko honako egitura hauek osatu dira:

Lantalde teknikoa

Partaideak
<ul style="list-style-type: none">• Elhuyar Aholkularitzako teknikariak: Helene Armentia eta Uxue Loinaz• Donostiako Euskara Zerbitzuko teknikariak: Edurne Otamendi, Amaia Iribar, Amaia Olabarria, Tomas Ugaldebere, Maite Zipritia, Ales Bengoetxea eta Rosa Okariz
Funtzioak
<ul style="list-style-type: none">• Prozesua antolatu eta koordinatu• Diagnostikoa osatzeko datuak bildu eta informazioa jaso• Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbidea bilatu.

Egitura Eragilea

Partaideak


- **Elhuyar Aholkularitzako teknikariak: Helene Armentia eta Uxue Loinaz**
- Donostiako Udaleko arduradunak eta langileak: Jon Insausti, Nekane Mendarte, Edorta Azpiazu, Coro Gorriti, Santxo Leizaola eta Tamara Alvarez
- Euskara Zerbitzuko teknikariak: Edurne Otamendi eta Amaia Iribar

Funtzioak

- Diagnostikoa kontrastatu eta osatu
- VII. plangintzaldiaren erronka eta lan-ildo estrategikoak hausnartu eta landu.

2.3.2 Lan-prozedura

VI. Plangintzaldiaren diagnostikoaren kontrastea egiteko eta VII. Plangintzaldiaren Plan Estrategikoaren hezurdura diseinatzeko honako urratsak egin dira:



3. EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2023 - 2027

3.1. Udalaren hizkuntza egoeraren indarguneak eta hobetzekoak

2022ko VI. Plangintzaldiaren ebaluazio-datuak hartu dira oinarri egungo egoeraren diagnostikoa osatzeko, eta datu horiek marko berrira (KEMEN) egokitu dira.

Ondoren, modu laburrean, KEMEN markoaren arlo bakoitzean Udalaren indargune eta hobetu beharrekoak jaso dira. Xehetasun handiagoarekin, arlo bakoitzeko adierazleen arabera abiapuntuko egoerak eta helburuak (%) dokumentu honen bukaerako taulan (3.7.2 taula) ikusi ahal izango dira.

KUDEAKETA

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Euskara Plana kudeatzeko egitura batzuk sortuta daude (zuzendaritzetako erabilera batzordeak eta Batzorde Teknikoa).	Zuzendaritzetako erabilera batzordeen eraginkortasuna ez da maila berekoa (batzuk osatu edo sendotu egin behar dira...) Plan Estrategikoaren jarraipena egiten bada ere, kudeaketa planen jarraipena ez da modu sistematizatuan egiten.

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
LIDERGOA	Arduradun teknikoaren inplikazioa eta parte hartzea desberdina da zuzendaritzaren arabera. Arduradun tekniko eta politikoen gaitasuna asko hobetu da azken urteetan, eta euskararen aldeko jarrera ere hobea da.	Arduradun politiko eta teknikoaren parte-hartzea, oro har, ez da oso handia Euskara Planaren diseinu, garapen eta jarraipenean; arduradun teknikoek politikoen bano parte hartze handiagoa izaten dute.

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
LANGILEAK	<p>Langileen 3/4k hizkuntza irizpideak ezagutzen dituzte eta neurri handi batean betetzen dituzte (%64); hau da, kudeaketa planari nahiz hizkuntza irizpideei buruzko informazioa jasotzeak ondorio zuzena dauka euren lan-jardunari lotutako hizkuntza-eginkizunen betetze-mailan.</p> <p>Langileen %50ek Euskara Planaren balorazio ona egiten dute.</p>	<p>Kudeaketa planaren gainera informazioa ez zaie langileei behar bezala iristen eta langileen parte hartzea, oro har, nahiko baxua da.</p> <p>Langileen %17k Euskara Planaren balorazio negatiboa egin dute, baina zergatiaz galdetuta %20k uste du gutxiegi egin dela.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
GAITASUNA	<p>Langileen hizkuntza gaitasuna oro har ona da: % 79 gai da bere lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko (langileek aitortutako datua). Langileen % 83k du lanpostuaren hizkuntza eskakizuna (HE) egiaztatuta.</p> <p>Arduradun politiko ia guztiak (zuzendaritzen ardura dutenak) gai dira haien funtzioak euskaraz betetzeko; egoera nabarmen hobetu da.</p>	<p>Langileek aitortu duten gaitasunaren pertzepzioa, egiaztatuta duten HEen azpitik dago.</p> <p>Langile batzuk ez dira gai bere lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko.</p> <p>Arduradun politiko guztiak ez dira gai euskaraz haien funtzioak betetzeko.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	<p>Euskararen normalizazioarekin lotutako ezagutza eta esperientziak partekatzeko ekimenetan parte hartu du Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez.</p>	<p>Oro har, herritarrei eta interes-taldeei ez zaie komunikatzen Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia.</p>

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen guztietan oro har hizkuntza klausulak txertatzen dira.	Ahulezia hizkuntza-klausulen jarraipenean dago. Kexak kontuan hartzen dira eta jarraipena egiteko modua da, baina ez da jarraipen sistematikoa egiten.

ERABILERA

Zerbitzu-hizkuntza

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
IRUDIA	Oro har, irudiarekin lotutako edukiak (errotulazioa, argitalpenak, iragarkiak, sare sozialak edota webgunea) ele bietan daude. Udalaren agerraldi instituzionaletan oro har euskararen presentzia bermatuta dago.	Udalaren agerraldi instituzionaletan, euskararen erabilera, oro har, gaztelaniaren maila berekoa da eta euskararen erabilera areagotzeko bidean aurrera egin beharko litzateke.

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Langileen %60 euskaraz zuzentzen zaie herritarrei. Donostiako erabilera eta ezagutza datuak kontuan izanda, Udalari euskaraz zuzentzen zaion herritar kopurua handia da (%35 inguru) da.	Herritarrei zuzendutako komunikazio eta zerbitzuetan ez da euskararen erabilera %100ean bermatzen. Euskarazko arreta eskatzen duten herritarrei (ahoz zein idatziz), ez zaie % 100 euskaraz erantzuten.

Lan-hizkuntza

ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
BARNE-HARREMANAK	<p>Barne harremanetako dokumentu eta komunikazioetan gero eta gehiago erabiltzen da euskara (euskaraz %22, ele bietan %39 eta gaztelaniaz %39)</p> <p>Zerbitzu eta atalaren arabera, euskararen erabilera handiagoa ala baxuagoa izan ohi da. Euskarazko administrazio-ataletan euskararen erabilera, ahoz zein idatziz, batez bestekoaren oso gainetik dago.</p>	<p>Barne harremanetako dokumentu eta komunikazioetan gaztelania hutsezko erabilera euskara hutsezko erabileraren ia bikoitza da.</p> <p>Bereziki, ahozko barne-harremanetan (lan bileretan, langileen artean) gaztelania erabiltzeko joera handiagoa da (%60 inguru).</p>
ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
KANPO-HARREMANAK	<p>Sektore publikoko erakundeekin, idatzizko harremanetan, euskararen erabilera ia 2/3koa da (euskaraz edo ele bietan).</p>	<p>Sektore publikoekiko komunikazioetan gaztelaniaren erabilera 1/3 ingurukoa da.</p>
ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
PRESTAKUNTZA	<p>Langileen % 30ek euskaraz jaso du prestakuntza.</p>	<p>Udalak, batez ere, gaztelaniaz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei. Zenbait arlotan zailtasunak daude prestakuntza euskaraz eskaintzeko, ez baita erraz topatzen eduki jakin batzuk euskaraz eskainiko dituenik.</p>
ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
BALIABIDE INFORMATIKOAK	<p>Langileek ohiko baliabide informatiko ia guztiak euskaraz erabiltzeko aukera dute.</p>	<p>Gehienak euskaraz egon arren, aplikazio batzuk gaztelaniaz daude eta euskaraz dauden batzuetan zuzendu beharreko akatsak daude.</p> <p>Langileek aplikazio informatiko ia guztiak euskaraz dituzten arren, erdiek baino ez dituzte euskaraz erabiltzen.</p>
ARLOA	INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
SORTZE-HIZKUNTZA	<p>Langileen % 35ek euskaraz edo ele bietan sortzen ditu dokumentuak, eta euskaraz sortzeko hizkuntza gaitasuna badago Udalean.</p>	<p>Lan ohiturengatik edota bestelako arrazoiengatik (informazio iturriak eta legeria gaztelaniaz egotea...) gaztelaniaz gehiago sortzen da euskaraz baino.</p>

3.2. Erronka eta helburu estrategikoak

3.2.1. Kudeaketaren erronka eta helburu estrategikoak

KUDEAKETAREN ERRONKA	Udalaren kudeaketa orokorrean euskararen aldagaia txertatzea eta jarraipen sistematikoa eta operatiboa egitea, lidergo politikoaren inplikazioa bermatuz eta langileen parte hartzea sustatuz.
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOA
Euskararen kudeaketa orokorra	VII. Euskara Plana eta Hizkuntza Irizpide esanguratsuenak Udalaren kudeaketa Plan orokorrean txertatzea.
Lidergoa	Arduradun tekniko eta politikoen inplikazioa eta proaktibotasuna sustatzea, eta lidergo kateak eraikitzea.
Langileak	Langileak VII. Euskara Planaren parte sentitzeko neurriak hartzea eta nork bere errealitatek erabilera areagotzeko urratsak egitea. Euskal hiztun gisa ahalduntze-prozesuan sakontzea.
Gaitasuna	Langileen nahiz arduradun politikoen hizkuntza gaitasuna areagotzea Hizkuntza gaitasuna hobetzeko erabilera erdigunean jartzea eta, euskara erabili ahala, sortzen diren prestakuntza beharrei erantzutea.
Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa	Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzea xede taldeei.
Hizkuntza klausulak	Kontratazio arduratsuen markoan eta dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen bidez, euskararen normalizazioa sustatzea, udal barruan nahiz kanpoan.

3.2.2. Erabileraren erronka eta helburu estrategikoak

ERABILERAREN ERRONKA	Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa guztiz bermatzea eta udal barruko nahiz beste erakundeekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOA
A) ZERBITZU HIZKUNTZA	
Irudia	Irudian euskara lehenestean gain, lanketa berezia bideratzea agerraldi instituzionaletan.
Herritarrekiko harremanak	Lan-hizkuntzan eragitea, herritarren hizkuntza hautua %100ean bermatu eta euskarazko kalitatezko zerbitzua eskaintzeko. Herritarrek Udala eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz aritzeko espazio natural gisa sentiaraztea

B) LAN HIZKUNTZA	
Barne-harremanak	Euskarazko administrazio-unitateen sarea sendotzea, Udal mailan erabileraren motor izan daitezen. Gainerako zuzendaritzetan lanketa egitea barne komunikazioetan euskararen erabilera areagotzeko eta euskarazko administrazio-atalen jarduna ahalbidetzeko.
Kanpo-harremanak	Erakunde publikoekiko harremanetan (bereziki, Eusko Jaurlaritza eta Aldundiarekin) euskarazko harremana areagotzea eta egonkortzea.
Prestakuntza	Euskaraz egin daitezkeen ikastaroak euskaraz eskaintzea. Prestakuntza plana egiterakoan hizkuntzaren aldagaia kontuan hartzea.
Baliabide informatikoak	Baliabide informatikoak euskaraz sortu eta euskaraz daudenak erabiltzeko sustapen-lana egitea eta neurriak hartzea.
Sortze-hizkuntza	Euskaraz sortzen diren dokumentuak areagotzea.

3.3. Plan estrategikoa

3.3.1. Adierazleen araberako helburuak aurreikusteko irizpideak

Plan Estrategikoan, aginte-paneleko adierazleez gain, Donostiako Udaleko erronka eta helburu estrategikoak erdiesteko adierazleak txertatu dira. Bertan, adierazle bakoitzaren egungo egoera (hau da, 2023ko adierazle horren datu kuantitatiboa) eta plangintzaldi amaierarako aurreikuspena jaso dira; hau da, zein ehunekotara iritsi nahi den 2027an (Ikus 3.7.2 taula).

Adibidea:

ZK	ADIERAZLEAK		
		Hasierako egoera 2023	Aurreikuspena
1	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	75%	100%
2	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	50%	75%

Adierazle adierazle helburuen aurreikuspenak egiteko irizpide hauek finkatu dira:

1.- KUDEAKETA

1.1. Euskararen kudeaketa orokorra

Udalan, jada, Euskara Plana kudeatzeko egitura batzuk sortuta daude, eta horiek sendotuta edota berregituratuta egungo eraginkortasun maila hobetzeko aukerak zabaltzen dira. Euskara Planaren jarraipen sistematikoari dagokionez, Plan estrategikoa ebaluatzeaz gain, zuzendaritzetako kudeaketa planen jarraipen sistematikoa egitea aurreikusten da, ekintzen eraginkortasuna ezagutu eta egokitzapenak egiteko. Beraz, kudeaketa orokorraren atal honi dagozkion adierazleetan hobekuntza tarte handia ikusten da eta %10 eta %25eko igoerak aurreikusi ditugu.

1.2. Lidergoa

Euskara Planaren kudeaketarako finkatuko diren egituren bidez, lidergoaren (arduradun politiko, tekniko zein sindikalen) parte hartzea eta inplikazioa hobetzeko tarte ikusten da; gainera, plangintzaldi honetan lidergoak aparteko garrantzia izango duela kontuan izanik, berariaz lantzeko gaia da. Beraz, atal honetako adierazleetan %25eko igoerak aurreikusten ditugu.

1.3. Langileak

Kudeaketa planari zein hizkuntza irizpideei buruzko informazioa langileei modu egokian emanaz gero, errazago egingo zaie beren lan eginkizunei dagozkien hizkuntza irizpideak betetzea. Komunikazioa hobetzeko ez ezik kudeaketa planean adostutako eginkizunetan langileak inplikatze lanketa eginez, atal honetako adierazleetan %10 eta %15 arteko igoerak aurreikusten dira.

1.4. Gaitasuna

Datozen bost urteotan, batez ere, udalera etorriko diren langile berriekin eta jada lanean ari direnen hizkuntza prestakuntzarekin eta erabilera hobetzeko dinamikekin euskara gaitasuna eta euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetzeko aukerak ikusten dira; %5 arteko igoerak aurreikusten dira.

1.5. Euskararen erabilera sustatzeko strategiaren komunikazioa

Udalak nolabaiteko komunikazioa egiten du bai barrura bai kanpora, baina ez da sistematikoa eta, gehienetan bereizgarri batzuk jartzera mugatzen da (langile euskaldunak antzematen laguntzen duen edozein euskarri, adibidez, mahaigainekoak, eranskailuak, txapak...). Bereziki barrura begirako komunikazio estrategia landuz, atal honetako adierazlean %25eko igoera aurreikusten da.

1.6. Hizkuntza Klausulak

Udalaren tamaina ikusita, kontratu administratiboetan eta dirulaguntzetan txertatzen diren hizkuntza klausulen jarraipena egiteko zailtasunak daude, baina datozen bost urteotan bereziki herritarrei zuzendutako zerbitzuen kontratuetan hizkuntza klausulen jarraipena egiteko sistema erraz eta eraginkorra diseinatzeko lanketa egitea aurreikusten da. Horrela, hizkuntza klausulen ataleko adierazleetan %10eko igoerak aurreikusten ditugu.

2.- ERABILERA

2.1.- ZERBITZU HIZKUNTZA

2.1.1. Irudia

Egungo egoeran ia denean betetzen da. Beraz, aurreikuspena %100 jarri dugu, baina ele bitakoen eta euskarazkoen proportzioetan eragitea aurreikusten da.

2.1.2. Herritarrekiko harremanak

Herritarrekiko komunikazio eta zerbitzuetan ez da euskararen erabilera %100ean bermatzen, baina administrazioaren betebeharra hori izanik, helburu hori ezarri da, euskarazkoa eta ele bitakoa kontuan hartuta.

2.2.- LAN-HIZKUNTZA

2.2.1. Barne harremanak.

Barne harremanetan bai idatzizkoan bai ahozkoan euskararen erabilera areagotzeko lanketa eginez (hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamikak abian jarri...) eta baliabideak eskainiz, %5 eta %10eko igoerak aurreikusi dira.

2.2.2. Kanpo harremanak

Udal zuzendaritzek sektore publikoko erakundeekin dituzten kanpo harremanak oso ezberdinak dira zuzendaritzen arabera, eta horietan %5 eta %10eko igoerak aurreikusi ditugu.

2.2.3. Prestakuntza

Laneko prestakuntza orokorraren datua nahiko baxua da eta arloan eragiteko zailtasunak kontuan izanda, hobekuntzarako tarte ertaina (%10) aurreikusten da. Langileek euskaraz lan egiteko trebakuntzari dagokionez, laneko beharrei lotutako prestakuntza eskaintza zabaltzea aurreikusten da.

2.2.4. Baliabide informatikoak

Gaitasuna duten langileen kopurua altua da eta euskaraz erabiltzeko lanketa eginez, hobekuntzarako tartea (%10) aurreikusten da.

2.2.5. Sortze hizkuntza

Langileen hizkuntza gaitasuna kontuan izanda, euskaraz sortzeko ohituretan eragitea aurreikusten da, bereziki, euskarazko administrazio-ataletan, behar duten laguntza eskainiz; %10eko igoera aurreikusten da.

3.3.2. Adierazleen araberako helburuak

Erantsitako taulan jaso ditugu Udalaren Euskararen Plan Estrategikoaren helburu estrategikoak eta adierazleen egungo egoera, eta horien araberako datozen bost urteotako helburuak.

KUDEAKETA			
1. EREMUA		KUDEAKETA	
Kudeaketaren erronka		Udalaren kudeaketa orokorrean euskararen aldagaia txertatzea eta jarraipen sistematikoa eta operatiboa egitea, lidergo politikoaren inplikazioa bermatuz eta langileen parte hartzea sustatuz.	
ARLOA		HELBURUAK	
HELBURU ESTRATEGIKOAK		ADIERAZLEAK	
		Hasierako egoera 2023	Aurreikuspena 2027
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	VII. Euskara Plana eta Hizkuntza Irizpide esanguratsuenak Udalaren Kudeaketa Plan orokorrean txertatzea.	%75	%85
		Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	
LIDERGOA	Arduradun tekniko eta politikoen inplikazioa eta proaktibotasuna sustatzea, eta lidergo kateak eraikitzea.	%50	%75
		Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	
	Arduradun tekniko eta politikoen inplikazioa eta proaktibotasuna sustatzea, eta lidergo kateak eraikitzea.	%42	%55
	Arduradunek jarraera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezzen.	%25	%40

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK		
		ADIERAZLEAK	Hasierako egoera 2023	Aurreikuspena 2027
LANGILEAK	Langileak VII. Euskara Planaren parte sentitzeko neurriak hartzea eta norik bere errealitatek erabilera areagotzeko urratsak egitea. Euskal hiztun gisa ahalduentze-prozesuan sakontzea.	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera planari eta hizkuntza irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	%75	%85
		Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak betetzen dituzte.	%64	%70
		Langileek betetzen dituzten kudeaketa planean adostutako eginkizunak.	%26	%35
		Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilera erakundearen duen bilakaeraz.	%50	%55
GAITASUNA	Langileen nahiz arduradun politikoaren hizkuntza gaitasuna areagotzea Hizkuntza gaitasuna hobetzeko erabilera erdigunean jartzea eta, euskara erabili ahala, sortzen diren prestakuntza beharrei erantzutea.	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	%79	%95
		Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	%75	%95
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzea xede taldeei.	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei.	%25	%50
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratazio arduratsuen markoan eta diru laguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen bidez, euskararen normalizazioa sustatzea, udal barruan nahiz kanpoan.	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetaiko hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	%25	%35
		Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	%25	%35

ERABILERA	
2. EREMUA	Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa guztiz bermatzea eta udal barruko nahiz beste erakundeekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.

		HELBURUAK		
ARLOA		ADIERAZLEAK	Hasierako egoera 2023	Aurreikuspena 2027
HELBURU ESTRATEGIKOAK				
IRUDIA	<p>Irudian euskara lehenestean gain, lanketa berezia bideratzea agerraldi instituzionaletan.</p> <p>Lan-hizkuntzan eragitea, herritarren hizkuntza hautua %100ean bermatu eta euskarazko kalitatezko zerbitzua eskaintzeko.</p> <p>Herritarrek Udala eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz aritzeko espazio natural gisa sentiaraztea</p>	<p>Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.</p> <p>Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.</p> <p>Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.</p> <p>Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.</p> <p>Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.</p>	<p>%100</p> <p>%60</p> <p>%84</p> <p>%55</p> <p>%66</p>	<p>%100</p> <p>%100</p> <p>%100</p> <p>%100</p> <p>%100</p>
2.1. ZERBITZU HIZKUNTZA				

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK		
		ADIERAZLEAK	Hasierako egoera 2023	Aurreikuspena 2027
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Lan-hizkuntzan eragitea, herritarren hizkuntza hautua %100ean bermatu eta euskarazko kalitatezko zerbitzua eskaintzeko.	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	%82	%100
	Herritarrek Udala eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz aritzeko espazio natural gisa sentiaraztea.	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	%42	%50
BARNE-HARREMANAK	Euskarazko administrazio-atalen sarea sendotzea, Udal mailan erabileraren motor izan daitezen.	Lankideen arteko ahozko eta idatzizko lan-harremana euskaraz izaten da.	%40	%50
	Gainerako zuzendaritzetan lanketa egitea barne komunikazioetan euskararen erabilera areagotzeko eta euskarazko administrazio-atalen jarduna ahalbidetzeko.	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	%40	%45
		Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	%60	%70
KANPO-HARREMANAK	Erakunde publikoekiko harremanetan (bereziki, Eusko Jaurlaritza eta Aldundiarekin) euskarazko harremana areagotzea eta egonkortzea.	Erakunde barneko prozedura administrazioak euskaraz jartzen dira abian.	%22	%25
		Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	%50	%55
		Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	%62	%70

2.2. LAN HIZKUNTZA

ARLOA		HELBURU ESTRATEGIKOAK		HELBURUAK	
		ADIERAZLEAK		Hasierako egoera 2023	Aurreikuspena 2027
PRESTAKUNTZA	Euskaraz egin daitezkeen ikastaroak euskaraz eskaintzea. Prestakuntza plana egiterakoan hizkuntzaren aldagaia kontuan hartzea.	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	%15	%25	
		Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.	%25	%50	
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko sustapen-lana egitea eta neurriak hartzea.	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dauden aplikazio informatikoak.	%45	%55	
SORTZE-HIZKUNTZA	Euskaraz sortzen diren dokumentuak areagotzea.	Euskaraz sortzen dira dokumentuak.	%35	%45	

3.3.3. Helburu estrategikoak lortzeko lan-ildo nagusiak

Ondorengo taulatan jaso ditugu Udalaren Euskararen Plan Estrategikoaren helburu estrategikoak erdiesteko lan-ildoak, arduradunak eta epeak.

KUDEAKETA				
1. EREMUA				
Kudeaketaren erronka	Udalaren kudeaketa orokorrean euskararen aldagaia txertatzea eta jarraipen sistematikoa eta operatiboa egitea, lidergo politikoaren inplikazioa bermatuz eta langileen parte hartzea sustatuz.			
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	VII. Euskara Plana eta Hizkuntza Irizpide esanguratsuenak Udalaren Kudeaketa Plan orokorrean txertatzea.	VII. Euskara Plana kudeatzeko egitura egokia antolatu: Egitura sistemaren azterketa egin eta proposamena osatu, zuzendaritza mailan eta Egitura Eragilearen gaineko gogoeta egin.	Euskara Zerbitzua	2024
		Euskararen Plan Estrategikoa eta Hizkuntza irizpide esanguratsuenak Udalaren Kudeaketa Plan orokorraren egutegian sartu eta aginte taulan jaso.	Euskara Zerbitzua Zuzendaritzak	urtero
		Euskararen Plan estrategikoaren markoan, zuzendaritzetako kudeaketa planak diseinatu eta jarraipena egin.	Euskara Zerbitzua Zuzendaritzak	2024-2026
		Udaleko VII. Euskara Plana Udalerria begirako Euskara Planarekin (ESEP/AROA) lotzeko aukerak aztertu.	Euskara Zerbitzua	2024
		Jarraipen sistematikoa egiteko adierazleak noiz eta nola jaso adostu, bai datu-iturri zentraletatik eta baita Zuzendaritzetatik ere (funtzioak ondo hausnartu eta justifikatu). Jarraipena egiterakoan, datuak sexuen arabera desagregatuak jasoko dira, ahal den guztietan.	Euskara Zerbitzua Zuzendaritzak	2025-2027

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA
LIDERGOA	Arduradun tekniko eta politikoen inplikazioa eta proaktibotasuna sustatzea, eta lidergo kateak eraikitzea.	Arduradun parte hartzea eta egitekoak zein behar lukeen hausnartu eta adostu.	Euskara Zerbitzua Zeharkako Zerbitzuen Koordinazioa Zuzendaritzak	2024
		Arduradun politikoekin hizkuntza politikaren inguruko hausnarketa estrategikoa eta elkarlana bideratu.	Euskara Zerbitzua Alderdi politikoak	urtero
LANGILEAK	Langileak VII. Euskara Planaren parte sentitzeko neurriak hartzea eta nork bere errealitatek erabilerara areagotzeko urratsak egitea. Euskal hiztun gisa ahalduntze-prozesuan sakontzea.	Langileei VII. Euskara Planaren eta hizkuntza irizpideen berri eman.	Euskara Zerbitzua	2024
		VII. Euskara Plana talde erronka gisa ikustarazi eta guztion arteko elkarlanaren garrantziaz ohartarazi.	Euskara Zerbitzua zuzendaritzetako arduradunak	urtero
		Langile berrientzat harrera-sistema adostu eta komunikatu (hizkuntza irizpideak, aukera berdintasuna...).	Euskara Zerbitzua Pertsonen zuzendaritza zuzendaritzetako arduradunak	urtero

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA
GAITASUNA	Hizkuntza gaitasuna hobetzeko erabilera erdigunean jartzea eta, euskara erabili ahala, sortzen diren prestakuntza beharrei erantzutea.	Prestakuntza saioak antolatu, ahozko eta idatzizko gaitasuna trebatzeko.	Euskara Zerbitzua	urtero
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzea xede taldeei.	Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazio proposamena landu eta gauzatu (nori, zer eta nola).	Euskara Zerbitzua	urtero
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratazio arduratsuaren markoan eta dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen bidez, euskararen normalizazioa sustatzea, udal barruan nahiz kanpoan.	Txertatzen ditugun hizkuntza-klausulen egokitasuna aztertzeke bidean sakondu, eta behar izanez gero, neurri zuzentzaileak hartu, progresiboki. Jarraipena egiteko metodologia landu eta osatu.	Euskara Zerbitzua Kontratazio Zerbitzua zuzendaritzak	2024-205
			Euskara Zerbitzua Kontratazio Zerbitzua zuzendaritzak	2024-2025

ERABILERA					
Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa gutzitza bermatzea eta udal barruko nahiz beste erakundeekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.					
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA	
2. EREMUA			Ekitaldiak eta arduradunak zerrendatu, irizpideak eman eta betetze malla neurtu.	Euskara Zerbitzua Alkatetza	2025-2027
			Irudian euskara lehenestea gain, lanketa berezia bideratzea agerraldi instituzionaletan.	Udalaren irudiarekin lotutako elementu eta euskarrietan (web orria, sare sozialak...) nahiz publizitatean irudi ez esterotipatuak eta hizkuntza ez sexistak erabili.	Zuzendaritzak
2.1. ZERBITZU HIZKUNTZA			Lehen hitza euskaraz egin eta lankideen artean euskararen erabilera handitu, Udala herritarrentzat euskaraz aritzeko gune natural bilakatu dadin.	Euskara Zerbitzua Zuzendaritzetako kideak	urtero
			Lan-hizkuntzan eragitea, herritarren hizkuntza hautua %100ean bermatu eta euskarazko kalitatezko zerbitzua eskaintzeko. Herritarrek Udala eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz aritzeko espazio natural gisa sentiaraztea	Haur eta gazteei zuzendutako ikastaro eta jarduerak euskaraz eskaintzeko lanketa egin. Sare proaktiboa aktibatu eta zuzendaritzetan lidergo-kateak osatu, euskararen erabilera handitzeko eta hizkuntza irizpideen jarraipena egiteko.	Euskara Zerbitzua Zuzendaritzak

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA
<p data-bbox="411 1821 469 2000">BARNE-HARREMANAK</p> <p data-bbox="719 2011 963 2040">2.2. LAN HIZKUNTZA</p>	<p data-bbox="355 1261 435 1753">Euskarazko administrazio-atalen sarea sendotzea, Udal mailan erabileraren motor izan daitezen.</p> <p data-bbox="467 1261 576 1753">Gainerako zuzendaritzetan lanketa egitea barne komunikazioetan euskararen erabilera areagotzeko eta euskarazko administrazio-unitateen jarduna ahalbidetzeko.</p>	<p data-bbox="355 530 413 1261">Lan-bileren mapa osatu, jarraibideak eman eta erabileraren neurketa egin.</p> <p data-bbox="488 530 580 1261">Euskarazko administrazio-unitateen garrantziaz ohartarazteko eta zuzendaritza guztien arteko elkartan egokia bideratzeko lanketa egin.</p> <p data-bbox="651 530 708 1261">Euskarazko administrazio-unitateen sendotzea bideratzeko oinarrizko kudeaketa plan berezi bat egin.</p> <p data-bbox="820 530 877 1261">Ahozko erabilera sustatzeko dinamikak abian jarri (Eusle metodologja, esaterako).</p> <p data-bbox="944 530 1002 1261">Lan-harreman formal eta ez-formaletan hizkuntza-erabileraren neurketa egin.</p> <p data-bbox="1062 530 1120 1261">Idatziko erabilera handitzeko dinamikak abian jarri (e-maila euskaraz...)</p> <p data-bbox="1187 530 1295 1261">E-administrazioko prozedurak euskaraz sortzeko lanketa, bereziki, euskarazko administrazio-unitateetan. Horretarako, dokumentuen ibilbideen mapa osatu, hizkuntza gaitasuna duenari euskaraz erabiltzeko bidea egin eta behar duten laguntza eskaini.</p>	<p data-bbox="355 282 435 530">Euskara Zerbitzua, Zuzendaritzetako teknikariak</p> <p data-bbox="488 282 609 530">Euskara Zerbitzua Euskarazko administrazio-atalak zuzendaritzak</p> <p data-bbox="651 282 772 530">Euskara Zerbitzua Euskarazko administrazio-unitateak</p> <p data-bbox="820 282 877 530">Euskara Zerbitzua zuzendaritzak</p> <p data-bbox="944 282 1002 530">Euskara Zerbitzua zuzendaritzak</p> <p data-bbox="1062 282 1120 530">Euskara Zerbitzua zuzendaritzak</p> <p data-bbox="1187 282 1295 530">Euskara Zerbitzua Lehendakariiza zuzendaritzak</p>	<p data-bbox="384 141 411 264">2025-2027</p> <p data-bbox="536 163 563 241">urtero</p> <p data-bbox="699 141 726 264">2024-2026</p> <p data-bbox="847 163 874 241">urtero</p> <p data-bbox="963 141 991 264">2025-2027</p> <p data-bbox="1062 163 1090 241">urtero</p> <p data-bbox="1182 163 1209 241">urtero</p>

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	LAN-ILDOAK	ARDURADUNAK	URTEA
KANPO-HARREMANAK	Erakunde publikoekiko harremanetan (bereziki, Eusko Jaurjaritza eta Aldundiarekin) euskarazko harremana areagotzea eta egonkortzea.	Erakunde publikoekin euskara hutsezko harremanak izateko aukerak identifikatu eta gauzatzeko urratsak bideratu (komunikatu aurrerantzean euskaraz egingo dugula...).	Euskara Zerbitzua zuzendaritzak	urtero
	Euskaraz egin daitezkeen ikastaroak euskaraz eskaintzea. Prestakuntza plana egiterakoan hizkuntzaren aldaia kontuan hartzea.	Eskaintako laneko prestakuntza orokorraren egoera ezagutu eta euskarazko eskaintza handitu eta zabaldu.	Euskara Zerbitzua Pertsonen Zuz. zuzendaritzak	urtero
PRESTAKUNTZA		Prestakuntza beharrak identifikatu eta beharretatik abiatuta berriazko prestakuntza eskaini.	Euskara Zerbitzua	urtero
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko sustapen-lana egitea eta neurriak hartzea.	3. eta 4. HE dutenek aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko neurriak hartu.	Euskara Zerbitzua DonostiaTIK	urtero
	Euskaraz sortzen diren dokumentuak areagotzea.	Aplikazio informatikoen hizkuntza-erabilera neurtu.	Euskara Zerbitzua DonostiaTIK	2025-2027
SORTZE-HIZKUNTZA		Dokumentuak ele bietan egin behar direnean, itzulpenen norabidea aztertu eta euskaratik gaztelaniarako itzulpen-kopurua areagotzeko lanketa egin.	Euskara Zerbitzua zuzendaritzak	urtero
		Itzulpen automatikoa egoki erabiltzeko neurriak hartu: sentsibilizazioa, jarraibideak gogorarazi...	Euskara Zerbitzua zuzendaritzak	urtero
		Sortze-hizkuntzaren neurketa egin.	Euskara Zerbitzua	2025-2027

3.4. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak Udalaren Euskara Plana garatzeko ezinbesteko gidari eta tresna dira, hizkuntza arau batzuk finkatzen baitituzte Udalaren jardura esparru guztietan (kanpo zein barne komunikazioetan, hizkuntza paisaian, administrazio kontratuetan...) euskararen erabilera normalizatzeko.

Hizkuntza irizpide horiek Udalaren VII. Euskara Planarekin batera onartuko ditu Donostiako Udalak eta horien betetze-maila eta hartu beharreko neurriak planari etengabeko jarraipena eginez aztertuko dira. 19/2024 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, hizkuntza irizpideak denboran irauteko tresna bat dira, eta plangintzaldien eta plan estrategikoen iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko.

3.5. Antolakuntza egiturak eta funtzioak

Udalaren VII. Euskara Plana garatzeko Donostiako Udaleko antolakuntza egitura hauek erabiliko dira:

a) Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzordeak

Aurreko plangintzaldietako planak garatzeko Hizkuntza Ofizialen erabilerarako batzordeak sortu ziren udaleko zuzendaritza guztietan eta, horiek sendotuta, jarraipena emango zaie plangintzaldi honetan.

Batzorde horiek kide hauek izango dituzte:

- Zuzendaria edo, salbuespen modura, berak eskuordetutako langilea, eta betiere, ardura zuzendariarena berarena izango da.
- Ardura eta maila desberdinetako hainbat langile. Langile kopurua zuzendaritzaren tamainaren arabera izango da.
- Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizatzailea.

Erabilera batzordeek honako funtzioak izango dituzte:

- Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Plan Estrategikoa zuzendaritzara moldatzea, urteko ekintza planaren bitartez, betiere VII. plangintzaldiko plan markoan zehaztutako helburuak lortze aldera eta hizkuntza irizpideak gidaritzat hartuta.
- Lehentasunak zehaztea.
- Aurrera eramango diren normalizazio ekintzak eta baliabideak adostea, zuzendaritzaren onespenerekin.
- Planaren jarraipena egitea.

b) Udaleko Euskararen Plan estrategikoaren egitura eragilea

Plan Estrategikoaren Egitura eragilearen kide hauek izango dituzte:

Plan Estrategikoaren diseinurako Egitura eragilea deituriko taldea osatu da eta bertako kideak zerrendatuta datoz txosten honen 2.3.1 puntuan. Aurrerantzean kide horiek edota beste kideren batzuk ere parte hartuko duten hausnartu eta adostu beharko da. Edonola ere, talde hau Udaleko maila, ardura eta zeregin desberdinetako ordezkari tekniko eta politikoei osatuko dute.

Egitura eragilearen funtzioak honako hauek izango dira:

- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa osatzea
- Zuzendaritza bakoitzeko kudeaketa planen bitartez egiten den inplementazioaren jarraipena eta balorazioa egitea.
- Beharrezko diren neurri zuzentzaileak proposatzea.

c) Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoa

Udaleko langileen eta ordezkarien ordezkari itzura parekidea izango da.

Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

- Pertsonen zinegotzia, edo haren ordezkari izendatzen duena
- Pertsonen zuzendaria, edo haren ordezkari izendatzen duena
- Euskarako zinegotzia, edo haren ordezkari izendatzen duena
- Euskara Zerbitzuko bi kide
- Donostiako Udaleko Langileen Batzordeko bost ordezkari

Batzorde Teknikoaren funtzioak honako hauek dira:

- Donostiako Udalaren Euskararen Erabilera Planaren jarraipena egitea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak betetzeko proposamenak egitea eta betetzerakoan izan litezkeen oztopoak detektatzea, aztertzea eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Donostiako udal administrazioko langileak euskara ikastaroetara joateko dauden baldintzen arauak aztertzea eta bere inplementazioaren jarraipena egitea.

3.6. Baliabideak

3.6.1. Giza baliabideak eta bestelakoak

Euskara Plana aurrera eramateko giza baliabide hauek aurreikusten dira:

a) Plana garatzeko antolakuntza egituretan parte hartzen duten langileak

b) Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizatzaileak: Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizatzaileak izango dira dinamizatzaile eta aholkulari zuzendaritza bakoitzeko kudeaketa plana implementatzerakoan. Normalizatzaileen zereginak hauek izango dira, besteak beste: egitasmoaren diseinua proposatzea, berau betetzeko normalizazio ekintzak proposatzea, egitasmoa betetzeko hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea eta ebaluazioa egiteko metodologia proposatzea.

c) Euskara Zerbitzuko itzultzaile-interpretak: testuak itzultzeko eta euskarazko testuak zuzentzeko zerbitzua eskaintzeaz gain, interpretazio zerbitzua eskainiko dute, betiere zerbitzu horietaz baliatzeko zehaztutako irizpideak eta irizpide zehatzak kontuan hartuz.

d) Kanpoko baliabideak: ikastaro berezietarako euskaltegiak, aholkularitza zerbitzuak...

Udalak beste hizkuntza baliabide batzuk ere eskainiko dizkie langileei euskaraz lan egiten laguntzeko: hizkuntza prestakuntza, trebakuntza, zuzenketa zerbitzua, dokumentu estandarrak, itzultzaile automatikoak, zerranda terminologikoak, zuzentzaile ortografikoak eta abar.

3.6.2. Euskarazko administrazio-unitateak

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 17. artikulua araberaren arabera, beren zereginak nagusiki euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak dira euskarazko administrazio-unitateak. Euskarazko administrazio-unitateak dira lanpostuen %80an gutxienez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne.

Honako hauek dira Udaleko euskarazko administrazio-unitateak:

- Alkatetza
- Antolamendu eta Kalitate Zerbitzua
- Berdintasun Atala
- Euskara Zerbitzua
- Gazteria Bulegoa
- Gizarte Ekintzako Zuzendaritza Unitatea
- Herritarren Partaidetza Atala
- Hezkuntza Bulegoa
- Kontratazio Zerbitzua
- Kultur Aniztasunaren Bulegoa
- Lankidetzaren Bulegoa
- Lehendakartzako Zerbitzu Orokorretako Unitatea
- Programazio, Azterlan eta Aurrekontuak
- Zeharkako Zerbitzuen Koordinazioa

Atal horiek Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planaren ardatz edo erdigune dira; dena den, atal horiek arrakasta izatekotan, euskarazko administrazio-unitate diren eta ez diren arteko elkarlanaren ondorio izango da.

Plangintzaldian zehar euskarazko administrazio-unitate gehiago izendatzen joango dira era progresiboan, izendatzeko baldintzak bete ahala.

3.7. Planaren garapena eta jarraipena

Donostiako Udalak VII. Plangintzaldiaren hasieran (2023an), erdian (2025ean) eta amaieran (2027an) planaren ebaluazioa egingo du, eta, gutxienez, aginte-paneleko adierazleen datuak bidali beharko dizkio Hizkuntza Politika Sailburuordetzari. Horretarako, SAREGIN izeneko aplikazio informatikoa sortu dute, datuak jaso eta Plan Estrategikoa eta kudeaketa planak kudeatzeko. Dena den, behar den guztietan, planaren garapenerako adostu diren adierazleen jarraipena egin ahal izango da.

Plan honen indarraldia VIII. Plangintzaldia onartu bitartekoa izango da.

